

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Praktiketako funtzionarioa izendatzea zerbitzu anitzetako langilea

Alkateak Dekretu hau (310/24 zk.) erabaki du, 2024ko urriaren 21ean, duen eskumenaz baliatuta:

Kontuan hartuta Aramaioko Udalak, 2022ko maiatzaren 19ko 170/2022 Dekretuaren bidez, onartu zuela 2022ko enplegu publikoa egonkortzeko eskaintza onartzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikularekin bat.

Kontuan hartuta ALHAOn, 2022ko abenduaren 19ko 145. zenbakian, eta akatsak zuzenduta 2023ko maiatzaren 10eko 54. zenbakian, osorik argitaratu zirela aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi berezia arautuko zituzten oinarriak, lehiaketa-sistemaren bidez honako lanpostu hauek betetzeko:

- Zerbitzu anitzetako langile plaza bat, administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezietako langileen azpieskala, txanda irekiko lehiaketa-sistemaren bidez.
- Euskarazko teknikari profesionalaren lanpostu bat, lan-kontratuko langileen plantillakoa, txanda irekiko lehiaketa-sistemaren bidez.

Kontuan hartuta deialdiaren laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela (2023/07/20ko 172 zk.).

Ikusita zerbitzu anitzetako langilearen plaza betetzeko hautaketa prozesua amaituta, lan eskaintza publikoaren epaimahai kalifikatzaileak behin betiko sailkapenak jakinarazi dituela eta izendapen-proposamena ere eman duela.

Ikusita proposatutako izangaiak deialdiaren oinarrietan ezartzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu dela, eta beraz, bidezkoa dela praktiketako funtzionario izendatzea.

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Aitziber Zumalde Pagoaga, 7244***** NAN zenbakiduna, behin-behinean izendatzea, Aramaioko Udaleko zerbitzu anitzetako langile baten plaza hari adjudikatu eta hartara atxikitzea (eskala: administrazio berezia, azpieskala: zerbitzu bereziak).

Bigarrena. Lanpostua behin-behinean beteko du 3 hilabetez, praktikaldia egingo baita Aramaioko Udalean, bat etorri abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarrian ezarritakoarekin.

Izendapen honek ebazpen honen egunetik aurrera izango ditu administrazio ondorioak.

Hirugarrena. Lanpostuaren atxikipena behin-behinekora izango da praktikaldia amaitu arte, deialdiaren 15. oinarriaren arabera.

Laugarrena. Aldi horrek irauten duen bitartean, praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko ditu bere egitekoak, eta dagozkion ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko da, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzematea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko, korporazioko idazkariaren aurrean.

Bosgarrena. Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta web orrian, udalaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Aramaion, 2024ko urriaren 22an

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA